

## ZERBITZUAK:

### **Doban**

#### *Jendaurrekoak:*

- **Liburu, aldizkari, DVD, CD , CD-ROM eta antzekoen mailegua**

Udal liburutegiko irakurlearen txartelagaz 6 dokumenturen mailegua eskuratu ahal izango da aldi berean: 3 liburu 15 egunean eta 3 ikus-entzunezko astebetean. Ganera, bestelako hamar dokumentu eskatu ahal izango dira Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean (EULSN).

- **Liburutegien arteko mailegua eta mailegu kolektiboa**

Gura dauenak udal liburutegiaren bidez eskatu ahal izango dauz Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean dagozan beste material batzuk. Ganera, ikastetxeek eta bestelako kolektiboek dokumentu kopuru handiagoa eskuratu ahal izango dabe maileguan, ikasleek edo kolektibo horreek osotzen dabezan pertsonak erabili daiezan.

- **Etxeko mailegua**

Udal liburutegiak instalazinoetara ailegateko ezintasuna egiaztatzen daben persona elbarriei liburuak eta bestelako materialak heldu eragingo deutsez maileguan; horretarako, kasuan kasuko baliabideak erabiliko dauz.

- **Udako liburutegia**

Liburutegiaren udako zerbitzu osogarria egongo da Bakioko hareatza ondo-ondoko itsas ibiltokian, sasoi horretako eskari handiari erantzuteko.

- **Wi-Fi-ko sarbidea**

Internetera konektatzeko zerbitzu hau doban eskaintzen dogu, gura dauenak liburutegi barruan be erabili daian. Zerbitzu honetaz baliatzeko, ez da beharrezkoa udal liburutegiaren irakurle txartela eukitea.

- **Erabiltzaileak prestatzea (bisita gidatuak, katalogoen kontsultak...)**

Udal liburutegiak prestakuntza personalizatua eskaintzen deutse erabiltzaileei, emoten diran zerbitzu guztiak erabilteko orduan ahalik eta autonomia gehien eduki daien.

- **Materialen eskaintza, eskariaren arabera**


Erabiltzaileek materialak eskuratzeko egindako proposamenak jaso eta aztertzen dauz, beti be beharrian orokorreari erantzun eta aurreikusitako aurrekontuetara egokitzen badira.

### ***Zerbitzu birtualak:***

Ez da beharrezkoa izango udal liburutegira bertaratzea zerbitzu batzuk erabilteko, berbarako maileguen barriztapena, iradokizunak, agirien eskaerak, e-posta bidezko barriak... Izan be, zerbitzu horreek liburutegian bertan emoteaz ganera, Internet bitartez be eskainiko dira (liburutegia.bakio@bizkaia.org).

### **Ordaindu beharrekoak:**

**Ordenagailuen erabilkerea:** ekipo ofimatikoak eta Internet, webcam-ak, bluetooth... erabilteko, une baktxean indarrean dagozan tarifak ordaindu beharko dira, ordu erdi edo ordubeteko saioetan.

 Zerbitzu hau bakar-bakarrik erabili ahal izango dabe 12 urtetik gorakoek edo lagundutako edade txikikoek.